

Estiloak badu neurririk?

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Ariketa-sorta honetan, tamaina handiko arroparen inguruan hitz egingo dugu. Gaiak murgildu aurretik, erantzun galdera honi: Ba al dakizu **curvy modeloak** zer diren? Egin zure hipotesiak...



1- Bideoaren ulermena

Ikusi Ana Goitia kazetari eta blogariari egindako elkarrizketa eta aukeratu esaldien amaiera egokia:

1. Ana da neurri handiko blogen aitzindaria...

- Argazkiak igotzen lehenengoa izan zelako.
- Lehenago ez zegoelako horrelakorik.
- Ideia onena berea izan zelako.

2. Bere blogari buruz era guztietako irunzkinak jaso arren...

- Gehienak bere arropa-neurriari buruzko komentario positiboak izan dira.
- Jende askoren inspirazio-iturria izan da.
- Gehienak komentario negatiboak izan dira.



3. Mugimendu curvy-a...

- Oso ona dela uste du, normaltasuna lortu baita.
- Ez zaio batere gustatzen.
- Oso ona dela uste du, baina ez dutela normaltasuna lortzeko behar dena egiten.

4. Gizartearen erritmoa...

- Azkarragoa da.
- Behar dugun abiadura da.
- Mantsoagoa da.

5. Anaren ustez, etorkizunean...

- Aparteko dendetan soilik izango dugu neurri handiko arropa.
- Normaltasunera iritsiko gara.
- Inoiz ez dugu nahi duguna lortuko.

2- Testuaren ulermena

Irakurri testua. Batetik, kokatu hutsuneetan falta diren aditz laguntzaileak. Bestetik, irakurri bitartean, jarri arreta modarekin, jantziekin lotutako hiztegian, eta egin zerrenda bat gai horri buruzko hitz edota esapideekin.

Estiloak badu neurrik?



Hasieran, ez zituen bere argazkiak blogera igotzen, baina jende askok eskatu ondoren, horretan hasi zen.

Arropa-marka ezagunak hainbat tamainatako modeloak erabiltzen hasi dira euren kanpainetan. Erakusleihoetako irudia pixka bat aldatzen ari da eta curvy modeloek ere ba_____ zeresana modaren industria erraldoian. Geratzeko etorri den joera izango da ala iragankorra izango dela uste duzu?

“Markak jabetu egin _____, eta moda bat ez izatea espero dut. Nire ustez, normaltasunera heldu behar dugu”, esan _____ (guri) Ana Goitia kazetari lekeitiarrak. Berak neurri handiko arropen buruz *elrincondeanatu.com* blogean idazten du, eta arrakasta handia lortu du orain hamar urte martxan jarri zuenetik. “Orduan ez _____ (egon) ia blogik, eta nik neure buruarentzat idatzi nahi _____, nire bi pasioak uztartuta: komunikazioa eta moda”, azaldu _____ (guri). Euskal Telebistaren Miramongo estudioan elkarrizketatu dugu.

Hastapenak

Anak bere bloga ireki zuenean, gainerako blogariek neurri estandarrik _____: “Blogean argazkiak jartzen hasi _____-ean, nire neurriak ez ziren ohikoak”, eta iruzkin gogorrak jasan behar izan zituela kontatu digu: “Ea nola ausartzen _____ nire argazkiak igotzen, horixe esaten _____ (niri)”. Txanponak, ordea, bazuen beste aldea, eta mezu oso politak ere jasotzen hasi zen: “Eskerrak eman _____ (niri) modara janzteagatik; gurasoek edo bikoteek ere idatzi _____ (niri) eskerrak emateko. Batzuek euren praktetako tamaina 46, 50 edo 54 izateagatik, denbora asko igaro dute etxetik atera gabe, eta oso tristea da hori”.

Konturatu gabe iritsi _____ (hari) arrakasta, eta erreferente bilakatu zen. Blogean idazteaz gain, Euskal Telebistako aurkezlea ere bada: “Ni aurkezle izateak zerbait esan nahi du, bagoaz apurka-apurka. Demonstratu egin behar izan dugu, baina hemen nago; aurrerapauso bat da”.

Normaltasuna

Goitiari marka iragartzeko pertsona lodiagoak agertzea ongi iruditzen _____, baina berak “normaltasuna” aldarrikatzen du: “Markek tamainari daukana baino garrantzia handiagoa ematen _____, eta hori ez zait gustatzen. Ez genuke muturrera eraman behar. Adibidez, curvy modelo askori azpiko arropatan argazki politak egiten _____. Badirudi sexyak direla erakutsi behar dutela beti. Nik normaltasuna defendatzen dut”.

Tamainari erreferentziarik ez egiten saiatzen da Ana bere blogean: “Neurri txikienetik handienera, guztiak normalak izatea lortu behar dugu”.

Marka batzuek negozioa ikusi _____ neurri handiko arropan, eta, horregatik jarri _____ salgai. Euskal Herrian ere gero eta denda gehiagok eskaintzen _____ era askotako neurriak, baina asko dago egiteko: “Dendentzat ere ez da erraza gazteentzat arropa polita topatzea. Nik Annuik marka sortu nuen eta bilduma txiki bat jarri _____ salgai. Bilduma txikia izanik, garestia da”, esan digu. Euskal Telebistako aurkezle-lanek eta eskuartean zituen beste hainbat proiektuk ez _____ (hari) markarekin jarraitzeko astirik uzten. “Diseinatzeari utzi behar izan _____ (nik) astirik ez neukalako. Hala ere, saldu erraz saltzen nuen, erosleak badaude”.

Askotan, erakusleihora begiratu eta Anak badaki ez dagoela arroparik berarentzat: “Leku guztietan eduki beharko genuke guztiontzat arropa, txiki-txikienetik hasi eta handienera bitarte, emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat”.

Estiloa

Gizartean oraindik lan handia dago egiteko, pertsona lodiak ez baitaude ongi ikusita. Baina baikorra da Ana, eta apurka-apurka aurrera _____-ela (joan) uste du: “Eskandinavian, adibidez, pertsona altuak dira eta dendetan euren tamainako arropa ere badute. Nire ustez, etorkizuna horixe da: denda guztietan denetarik egotea”. “Norberak bere burua onartu egin behar du, eta etekina atera: ez baita zein neurri erabiltzen dugun, baizik eta neurri hori nola erabiltzen dugun”.

Anak arrazoi du? Zure ustez, inoiz ikusiko dugu neurri guztietako arropa dendetan? Zergatik? Gizarteak normalizatuta duen gaia dela iruditzen zaizu? Zer egingo zenuke?

Ana Goitiaren iritzia bildu dugu testuan. Hona hemen ideia batzuk:

- “Ni aurkezle izateak zerbait esan nahi du, bagoaz apurka- apurka”
- “Markek tamainari daukana baino garrantzia handiagoa ematen diote, eta hori ez zait gustatzen”
- “Neurri txikienetik handienera, guztiak normalak izatea lortu behar dugu”

- Ados zaude berak esandakoekin?
 - Zerekin zaude ados eta zerekin ez?
- Idatzi zure iritzia paragrafo batean ondoko egiturak erabiliz:
- Ados nago** esandakoekin / **Uste dut** egia dela / Ba, nik **ez dut uste** egoera hain larria denik / **Ez zait iruditzen** / Pertsona lodiak baztertzearen **aurka nago** / **Nire ustez**, pertsona lodiak oso baztertuta daude.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



3- Potolofobia

Ba al dakizu zer den **potolofobia**?

Potolofobia gizen dauden pertsonen aurkako gaitzespena da. Lodi dauden pertsona askok gizartearen gaitzespena, bullyinga, lana aurkitzeko zailtasunak, eta horrelako arazoak jasaten dituzte. Sare sozialei esker, gainera, gisa horretako mezuak gehiago zabaltzea lortu da.

Jarraian potolofobiari buruzko erreportaia ikusiko duzu. Ikusi baino lehen, bete hutsuneak ondoko hitz gakoak erabiliz. Gero, bideoa ikusiz, konprobatu erantzunak zuzenak diren.

txandala / urdaila / irainak / emakumezkoak / amesgaiztoa / ikusgai / harro / autoestimu

Itziar Benede esataria.- Celestek ehun kilo baino gehiago pisatzen du eta ___1___ esaten du lodi dagoela. Bidea, baina, ez da erraza izan. Zortzi urterekin kiloak irabazten zituen erritmo berean jasotzen zituen ___2___. Inguruko gaitzespena jasotzen zuen. Arropa erostea ___3___ zen. Urteetan ez zuen ___4___ ez zen beste jantzirik izan.

Errealitate hori *Gordofobia* izeneko dokumentalean jasotzen dituzte.

Potolofobiaren biktima gehienak ___5___ dira eta askok irteerarik gabeko laberinto batean bukatzen dute.

Sendagilea.- Perfil bat dago beraien aurka eta horren presioa, ba bueno, ___6___ baxua edukitzen baldin baduzu, uzten zara eramaten eramaten eta pixkanaka-pixkanaka kontrako prozesua egiten duzu, ez? eta erraza da hortik loditzea, ez?

Esataria.- Irudi honen eta argazki honen artean hiru urte eta 50 kiloko aldea dago. Arantxak, osasun-arazoengatik ___7___ operatu behar izan zuen.

Arantxa.- Esaten dute GORDA gainera, ez? con el moflete beteta, GORDA, en plan, hori, ez? mina egiteko. Sufritu dugu, bai.

Esataria.- Orain, badirudi gauzak aldatzen doazela. Sare sozialak potolofobiaren aurkako mezuz betetzen ari dira.

STOP potolofobia eta antzeko plataformetan aurkitu dute euren egoera ___8___ egiteko aukera.

Taldeka komentatzeko:

- Ezagutzen al duzu lodia izateagatik edota itxuragatik egoera ezeroso horietako batean izan al den norbait?
- Hainbesteko garrantzia al du itxurak gizarteratzeko, lanpostu bat bilatzeko, lagunak egiteko...? Zein da zure esperientzia?
- Ezagutzen al duzu itxuraren inposaketari paso egiten dion inor? Ezagutzen al duzu beste ezereen ginetik bere estilo propioari eusten dion norbait?

1- Bideoaren ulermena

1. Argazkiak igotzen lehenengoa izan zelako. ✓
2. Jende askoren inspirazio-iturria izan da. ✓
3. Oso ona dela uste du, baina ez dutela normaltasuna lortzeko behar dena egiten. ✓
4. Mantsoagoa da. ✓
5. Normaltasunera iritsiko gara. ✓

2- Testuaren ulermena

Estiloak badu neurrik?

Arropa-marka ezagunak hainbat tamainatako modeloak erabiltzen hasi dira euren kanpainetan. Erakusleihatoko irudia pixka bat aldatzen ari da eta curvy modelok ere badute zeresana modaren industria erraldoian. Geratzeko etorri den joera izango da ala iragankorra izango dela uste duzu?

“Markak jabetu egin dira, eta moda bat ez izatea espero dut. Nire ustez, normaltasunera heldu behar dugu”, esan digu Ana Goitia kazetari lekeitiarrak. Berak neurri handiko arropen buruz elrincondeanatu.com blogean idazten du, eta arrakasta handia lortu du orain hamar urte martxan jarri zuenetik. “Orduan ez zegoen ia blogik, eta nik neure buruarentzat idatzi nahi nuen, nire bi pasioak uztartuta: komunikazioa eta moda”, azaldu digu. Euskal Telebistaren Miramongo estudioan elkarrizketatu dugu.

Hastapenak

Anak bere bloga ireki zuenean, gainerako blogariek neurri estandarrak zituzten: “Blogean argazkiak jartzen hasi nintzenean, nire neurriak ez ziren ohikoak”, eta iruzkin gogorak jasan behar izan zituela kontatu digu: “Ea nola ausartzen nintzen nire argazkiak igotzen, horixe esaten zidaten”. Txanponak, ordea, bazuen beste aldea, eta mezu oso politak ere jasotzen hasi zen: “Eskerrak eman dizkirate modara janzteagatik; gurasoek edo bikoteek ere idatzi didate eskerrak emateko. Batzuek euren praketako tamaina 46, 50 edo 54 izateagatik, denbora asko igaro dute etxetik atera gabe, eta oso tristea da hori”.

Konturatu gabe iritsi zitzaion arrakasta, eta erreferente bilakatu zen. Blogean idazteaz gain, Euskal Telebistako aurkezlea ere bada: “Ni aurkezle izateak zerbait esan nahi du, bagoaz apurka-apurka. Demostratu egin behar izan dugu, baina hemen nago; aurrerapauso bat da”.

Normaltasuna

Goitiari markak iragartzeko pertsona lodiagoak agertzea ongi iruditzen zaio, baina berak “normaltasuna” aldarrikatzen du: “Tamainari markek daukana baino garrantzia handiagoa ematen diote, eta hori ez zait gustatzen. Ez genuke muturrera eramane behar. Adibidez, curvy modelo askori azpiko arropatan argazki politak egiten dizkiete. Badirudi sexyak direla erakutsi behar dutela beti. Nik normaltasuna defendatzen dut”.

Tamainari erreferentziarik ez egiten saiatzen da Ana bere blogean: “Neurri txikienetik handienera, guztiak normalak izatea lortu behar dugu”.

Marka batzuek negozioa ikusi dute neurri handiko arropan, eta, horregatik jarri dute salgai. Euskal Herrian ere gero eta denda gehiagok eskaintzen dituzte era askotako neurriak, baina asko dago egiteko: “Dendentzat ere ez da erraza gazteentzat arropa polita topatzea. Nik Annuik marka sortu nuen eta bilduma txiki bat jarri nuen salgai. Bilduma txikia izanik, garestia da”, esan digu. Euskal Telebistako aurkezle-lanek eta eskuartean zituen beste hainbat proiektuk ez zioten markarekin jarraitzeko astirik uzten. “Diseinatzeari utzi behar izan nion astirik ez neukalako. Hala ere, saldu erraz saltzen nuen, erosleak badaude”.

Askotan, erakusleihora begiratu eta Anak badaki ez dagoela arroparik berarentzat: “Leku guztietan eduki beharko genuke guztiontzat arropa, txiki-txikienetik hasi eta handienera bitarte, emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat”.

Estiloa

Gizartean oraindik lan handia dago egiteko, pertsona lodiak ez baitaude ongi ikusita. Baina baikorra da Ana, eta apurka-apurka aurrera goazela uste du: “Eskandinavian, adibidez, pertsona altuak dira eta dendetan euren tamainako arropa ere badute. Nire ustez, etorkizuna horixe da: denda guztietan denetarik egotea”. “Norberak bere burua onartu egin behar du, eta etekina atera: ez baita zein neurri erabiltzen dugun, baizik eta neurri hori nola erabiltzen dugun”.

Anak arrazoi du? Zure ustez, inoiz ikusiko dugu neurri guztietako arropa dendetan? Zergatik? Gizarteak normalizatuta duen gaia dela iruditzen zaizu? Zer egingo zenuke?

Modarekin, jantziekin zerikusia duten hitz eta esapideen zerrenda

- Arropa-marka
- Modeloak
- Erakusleihoetako irudia
- Curvy modeloak
- Modaren industria
- (modaren) joera
- Neurri handiko arropa
- Modara jantzi
- Praketako tamaina
- Azpiko arropa
- (arropa-)bilduma
- (arropa) diseinatzeari utzi
- Emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat (arropa)
- Estiloa (janztekoa)



3- Potolofobia

Itziar Benede esataria.- Celestek ehun kilo baino gehiago pisatzen du eta harro esaten du lodi dagoela. Bidea, baina, ez da erraza izan. Zortzi urterekin kiloak irabazten zituen erritmo berean jasotzen zituen irainak. Ingurukoen gaitzespena jasotzen zuen. Arropa erostea amesgaiztoa zen. Urteetan ez zuen txandala ez zen beste jantzirik izan.

Errealitateok *Gordofobia* izeneko dokumentalean jasotzen dituzte.

Potolofobiaren biktima gehienak emakumezkoak dira eta askok irteerarik gabeko laberinto batean bukatzen dute.

Sendagilea.- Perfil bat dago beraien aurka eta horren presioa, ba bueno, autoestima baxua edukitzen baldin baduzu, uzten zara eramaten eramaten eta pixkanaka-pixkanaka kontrako prozesua egiten duzu, ez? eta erraza da hortik loditzea, ez?

Esataria.- Irudi honen eta argazki honen artean hiru urte eta 50 kiloko aldea dago.

Arantxak, osasun-arazoengatik urdaila operatu behar izan zuen.

Arantxa.- Esaten dute GORDA gainera, ez? con el moflete beteta, GORDA, en plan, hori, ez? mina egiteko. Sufritu dugu, bai.

Esataria.- Orain, badirudi gauzak aldatzen doazela. Sare sozialak potolofobiaren aurkako mezuz betetzen ari dira.

STOP potolofobia eta antzeko plataformetan aurkitu dute euren egoera ikusgai egiteko aukera.